



## **KOORDINAZIO-ZUZENDARITZAK «EUSKAL SEKTORE PUBLIKOAREN GARDENTASUNARI, HERRITARREN PARTAIDETZARI ETA GOBERNU ONARI BURUZKO LEGE-AURREPROIEKTUAREN» INGURUAN EGINDAKO TXOSTENA**

---

«EUSKAL SEKTORE PUBLIKOAREN GARDENTASUNARI, HERRITARREN PARTAIDETZARI ETA GOBERNU ONARI BURUZKO LEGE-AURREPROIEKTUAREN» inguruko txosten bat egiteko eskaerari erantzunez, hemen zenbait ohar egin dira, batez ere, Lehendakaritzaren egitura eta funtzionamendu orokorrari eragiten dieten alderdien eta egungo Arloen Dekretuak Lehendakaritzari esleitzen dizkion funtzioen inguruan, hala nola Gobernu Irekia eta Gobernu Ekintzaren koordinazioa.

Nolanahi ere, aurretiaz, Lege Aurreproiektuaren edukiari buruzko izaera orokorragoko zenbait ohar ere barne hartu dira, honako arlo hauen harira:

1. Testua idazteko erabili den legegintza-teknikari dagokionez, ikusten da izaera kontzeptuala edo azalpenezkoa duten edukiak ugaritu direla alderdi exekutiboan, araugintza-izaerako edukiak nagusitu behar diren arren. Ildo horretan, edukiak berrikusteko eta arintzeko aukera baloratu behar da, agindu efektiboak izanik legetestuaren funtsa diren edukiak azalpen-izaera duten edukietatik bereiziz. Azken horiek nolabaiteko tonu didaktikoa edo literarioa daukate, eta, adibidez, zioen azalpenaren edukietan edo testuarekin batera aurkezten den dokumentazio edo memorian txertatu daitezke. Hori dela eta, halako edukiak saihestea proposatzen da, ez dutelako inolako eragin juridiko efektiborik. Horrekin, jadanik nahiko mardula den testu baten bolumena arinduko da, bere izaera juridikoari eutsiko zaio eta herritarrentzat ulergarriagoa eta eskuragarriagoa bihurtuko da.
2. Era berean, eta helburu berarekin, testua sinplifikatzeko aukera ebaluatu beharko litzateke. Horretarako, beste tresna juridiko batzuetan tratatu daitezkeen hiru eduki mota kendu daitezke:
  - Arau-garapena izan dezaketen eduki juridikoak: Araugintza-edukietan, bereizi egin behar dira zalantzarik gabe Lege mailara igo behar direnak (horietako gutxi batzuek Lege izan behar dute, Legezotasun Printzipioa bete dadin) araudi-agindu izan daitezkeenetatik, gobernatzailearen ahalmen bat delako, eta ez legegilearena, edota errealitate aldakor bati dagokiolako eta, ondorioz, Lege batean sartzan ez diren aldian behingo egokitzapen edo erregulazioak eskatzen dituelako.
  - Borondatezko izaera duten administrazio-jarduerei loturiko edukiak: Arau-edukirik (eta, beraz, behartze-izaerarik) ez duten edukiak dira, lege honen eskakizunak betetzeko litezkeen administrazio-ekintzak adierazten dituztenak, baina eraginkortasunez gauzatzen ez direnak, ez daudelako betetze-konpromiso

zorrotz baten mende eta gizarte-testuingurua etengabe aldatzearen eraginpean daudelako.

-Sustapen-jarduerari loturiko edukiak: Administrazio batek lege-aginduak betetzeko izan behar dituen helburuekin eta baliabideekin lotutako administrazio-jardueraren alderdi kontingenteei eragiten dieten edukiak dira. Horiek, ondorioz, aldakorrak izan behar dute (ez da komeni, beraz, lege-testu batean finkatuta gera daitezen), une bakoitzeko baldintzetara egokitu behar direlako, prozesuak aipatzen dituztelako eta eskuragarri dauden baliabideen arabera ezartzen direlako. Ondorioz, izaera aldakor hori dela eta, ez da egokia lege mailako testu batean finkatzea.

3. Legearen aplikazio-esparrua definitzeko erabiltzen diren terminoak hobeto ulertzeko (3. artikulua), azalpen bat jarri beharko litzateke, adibidez, Zioen Azalpenean. Hala, jatorria aipatu beharko litzateke, aukera hori hautatu izana justifikatzeko eta oinarri den lege-erreferentzia azaldu (Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Orokorra Zuzentzen duten Printzipioen Legeko 7. artikulua). Dena den, *Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoa* eta *Euskal Sektore Publikoa* (1. artikulua) bereiztea nahasgarria izan daiteke. Hori dela eta, Lege Aurreproiektuan *Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoa* esamoldea erabili ordez, *Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoa* erabiltzea proposatzen da, aipatutako Legearen 7.1. artikuluan jasotzen den moduan.
4. Nahasgarria da, halaber, 3.4. artikuluan *maila instituzional bakoitzeko dagozkion Gobernuen erreferentzia*. Nahiz eta ematen duen instituzio guztien administrazio-organoak aipatzen direla, halaber, Euskal Sektore Publiko deritzona integratzen dutenak, erabiltzen diren terminoak ez du erabat argi uzten. Hori dela eta, beharbada, *administrazio-organoak* terminoa egokiagoa izan daiteke herritarrek hobeto uler dezaten, herritarrak baitira lege-proiektuaren azken hartzaileak.

Ildo horretan, txostenean aztertzen den testua berrikustea gomendatzen da, beste tresna juridiko batzuen bidez arautu daitezkeen, edota Legea indarrean sartu eta gutxira indarraldia edo gaurkotasuna galdu dezaketen edukiak arintzeko. Hartara, batetik, Gobernuaren legea betetzeko lana erraztuko da, gaurkotasunik ez duten edo etengabe aldatzen diren errealitate batera egokitzen ez diren agindu zorrotzetara lotuta egon gabe. Horri esker, une bakoitzeko behar eta egoera desberdinetara hobeto egokitzea lortuko da.

Adibide gisa, lege-proiektuen, plan estrategikoen eta jarduera esanguratsuen aurretiazko inpaktu-ebaluazioaren prozeduraren erreferentzia aipa daiteke, 7. artikuluko zenbakien bidez jasotakoa. Horren edukia, gaia eta aurreikuspenak direla eta, auzi horiek lege-aurreproiektuan zehazten diren aurreikuspenen arau-garapenerako uztea egokiagozat jotzen da.

Aurreproiektuak, «aurretiazko inpaktu-ebaluazioa» zer den luze eta zabal definitu ostean eta izaera teknikoko alderdiren bat –hala nola interakzioa– kontuan har dadin iradoki ostean, zenbait alderdi arautzen ditu, hala nola: sail eskuduna, analisi-maila, jardueraren denbora-zenbatespena, prozesuaren ezaugarriak, inpaktu-txostenaren edukiaren zehaztapena.

Alderdi horiek guztiak (horien izaera teknikoa eta kontingentea dela eta) egokiagoak dira legearen arau-garapen batean, izan ere, aldatu egingo dira edo eboluzionatu egingo dute, kanpo faktoreen ondorioz (adibidez, arlo horretako doktrina aldatzea) eta barne faktoreen ondorioz (adibidez, administrazio-antolamendua).

Lege-aurreproiektuan jasotzen diren eta, Lehendakaritzari bereziki eragiteagatik edo berriro aztertzea komeni izateagatik, ohar bat merezi duten alderdien artean, honako hauek bereiz ditzakegu:

- A) Lehendakaritzaren egiturari eta funtzionamenduari eragiten diotenak, batez ere I. tituluan jasotzen direnak.
- B) Gobernu Ekintzaren plangintza eta ebaluazioa arautzen dutenak. II. titulua (5. artikulutik 14.era)
- C) Euskal Sektore Publikoaren gardentasunari buruzkoak, III. tituluan jasotzen direnak. Hor Erregimen zigortzaileari buruzko Kapituluak sartzeko da (15. artikulutik 55.era).
- D) Herritarren parte-hartzeari eta parte hartzeko prozesuei buruzkoak. IV. titulua (56. artikulutik 66.era)
- E) Gardentasunaren eta gobernu onaren arloan Organismoak eta Instituzioak sortzen eta arautzen dihardutenak. V. titulua (67. artikulutik 82.era)

**A) I. tituluko artikuluei buruzko oharra**

1.- Nahiz eta izaera orokorreko oharrei buruzko 3. zenbakian jadanik tratatu den, komeni da testu osoan zehar aplikazio-esparrua definitzeko erabili diren kontzeptu berak erabiltzea, legea hobeto ulertuko bada. Iradokizun hori kontuan hartu beharko litzateke, halaber, Aurreproiektu hau Euskal Lege Publikoaren Antolamendu eta Funtzionamenduari buruzko Lege Aurreproiektuaren aurreikuspenekin koordinatzeko unean. Azken horren xede nagusia orotariko erakundeek osatzen duten (nortasun juridiko desberdinekin eta zuzenbide publiko edo pribatuaren mende) Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoa antolatzea da.

2.- 4.2. artikuluan, administrazioaren jardura arautu behar duten herritarrekiko interakzio-printzipioak aipatzen dira. Printzipioak azaltzen dituzten edukiak eta zenbakitzea egokitzat jotzen dira. Dena den, publizitate aktiboaren printzipioa garatzen duen edukian, barne hartu beharko litzateke datuen irekiera eta berrerabilera (ez da aipatzen), hori baita mugarrietako bat administrazio-modu berri bat ahalbidetzeko elementuak txertatzeko saiakeran eta, zehazkiago, herritarrekiko lankidetzan balioa sortzeko saiakeran.

**B) II. tituluko artikuluei buruzko oharra**

I. kapituluaren plangintza, Gobernuaren ekintzaren gaineko ebaluazioa eta horien bien sustapena arautzen dira. Konpromiso horiekin batera doa gobernu-ekintza objektibatzea eta zehaztea, horiek kontuak ematea ahalbidetzen baitute.

1.- Oinarri hartuta Gobernuari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 8. a) artikulua Lehendakariari onartzen diola «Gobernu Programa definitzeko» eskumena, Aurreproiektuaren 5.1. artikulua Eusko Jaurlaritza behartzen du Legegintza bakoitzean «Gobernu Plan» deritzona prestatzera, eduki irekiarekin, baina, paradoxikoa den arren, eduki minimo batekin.

Gobernu Programa legealdirako konpromiso eta xedeak zehazten dituen eta orotariko jatorria izan dezakeen (hauteskunde-programa, legealdirako ituna...) programa-dokumentu gisa definitzen da. Baina ez dago horren edukiaren inguruko eskakizunik (ildo horretan, Gobernu Plana bera barne har lezake); alegia, Gobernu Plan deritzona barruan gera liteke, ulertzen bada kontzeptualki lehenak herritarrekiko konpromisoak eta xede orokorrak ezartzen dituela eta, bigarrena, berriz, horiek lortzeko baliabideei dagokiela<sup>1</sup>.

Ildo horretan, biak bateragarri eta osagarritzat har daitezke, baina, horretarako, kontzeptualki bereizi behar dira. Izan ere, Gobernu Plana termino berritzailea da eta, nolana ere, Gobernu Programaren mende geratzen dela ulertu behar da.

2. Bigarrenik, zirriborro honetan erabili diren xehetasunek Lege mailara igotzen dituzte, batetik, Gobernuaren eskumenekoak diren zenbait alderdi eta, bestetik, egoera eta errealitate aldakorren mende dauden zenbait alderdi (horien arautzeak ezin du egon Lege baten zurruntasunaren mende).

Ildo horretan, proposatzen da Legeak legealdi bakoitzean Gobernu Plan bat taxutzeko betebeharra soilik jasotzea. Gainera, horretarako, eduki minimo bat ezarri behar da, baina gehiegizkoa dirudi jardura esanguratsuen erreferentziak identifikatzea horretan, izan ere, normalizatu gabeko baliabide instrumentalak dira, kontingenteak eta askotarikoak, administrazio-jardueraren diskrezionalitatearen –eta ez ausazkotasunaren– adierazle.

Horrek ez du esan nahi barne hartu behar ez direnik, baizik eta barne hartu ahalko direla, egokitzen jotzen den heinean. Era berean, eduki berriak kanpo utzi edo barne hartu ahalko dira Legealdian zehar, askotariko egoeren aurrean, Aurreproiektuan dokumentuari onartzen zaion izaera irekia dela eta.

Legeak, halaber, derrigorrez Parlamentura bidaltzeko eta argitaratu eta ezagutarazteko baldintza ezarri ahalko du, baina ez ditu ezarri behar ezagutarazteko tresnak; gainera, horiek aurrerapen teknologikoen arabera aldatu egingo dira.

3. Gobernu Planaren ezarpenaren segimenduaren ebaluazioa, prozedura-izaeraz, antolamenduaren kultura, ebaluazioaren publikitatea... kontzeptualki definitzeko eduki guztiak, alegia, 7. artikulutik 14.era bitartekoak, Legez arautu behar ez direla ulertzen da, izan ere, ondoren egiten den arau-garapenean arautu behar dira. Ahalmen horiek Gobernu

---

<sup>1</sup> Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoak Euskal Administrazio Publikoaren Lege Aurreproiektuari buruz egin zuen 120/2014 Irizpeneko 263. zenbakitik 271.era bitartean ezarritakoarekin bat.

Kontseiluari edota Saitetako pertsona titularrei dagozkie, eta horiek nahitaez betebeharreko Lege batean jasoz gero, Gobernuaren ohiko ekintza eragotz daiteke, baita eten edo kolapsatu ere, gaur egungo idazketarekin.

Ondorioz, Titulu honetan Legez arautu beharreko alderdiak bakarrik jaso behar direla deritzogu. Ildo horretan, 7. artikulutik 14.era bitartekoak bahetzea proposatzen da, arau-izaera duten edukiak kanpo utziz<sup>2</sup> (izaera tekniko edo prozedurazkoa duten edukiak), eta 5. artikulua honela idatzita uztea:

*«5. artikulua.- Gobernu-plana.*

*1.- Gobernu-ekintza denboran zehar kokatzeko eta gizarteratzeko, eta herritarrekiko konpromisoaren eta erantzukizunaren oinarriak ezartzeko, Eusko Jaurlaritzak gobernu-plan bat prestatuko du legegintzaldi bakoitzean, lehendakariak zehaztutako gobernu-programaren arabera. Eduki irekia izango du, eta honako hauek bilduko ditu:*

- a) Lortu nahi diren helburu estrategikoak.*
- b) Lortzeko behar diren jarduerak eta baliabideak.*
- c) Plana betearazteko erantzukizuna duten organoak.*
- d) Planaren segimendua eta ebaluazioa egiteko adierazleak.*

*2.- Jardueren artean, era berean, Gobernuaren Plan Orokorren parte diren lege-proiektuak eta plan estrategikoak identifikatu behar dira. Hala, lege honi dagokionez, herritarren beharrezan edo arazo nagusiei erantzuteko asmoz egiten diren eta gobernuaren aurreikuspenetan ezarritako lehen tasun politikoei lotuta dauden planak dira plan estrategikoak. Sailarteko edo erakundearteko koordinazioa edo jardun publikoan berrikuntza-arrastoa uzten duen ekintza bat behar izan dezakete, eta, gainera, emaitzen eta eraginaren segimendu zehatza eta ebaluazioa eskatzen dute.*

*3.- Gobernu Plana Eusko Legebiltzarrerara igorriko da, hark planaren berri izan dezan, eta, horrez gain, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta administrazioak erabiltzen dituen euskarri guztietan argitaratuko da. Horretarako, informazio horren bertsio publikoak egingo dira, herritarrek erraz eskuratzeko modukoak.*

*4.- Gobernuak araudi bidez ezarriko ditu, hala dagokionean, aurretiazko ebaluaziorako eta plangintzarako sistemak, halaber kudeaketa publikoaren jarraipen eta ebaluaziorako prozedurak.»*

4. Zehazki, Lege Aurreproiektu baterako ezegokiak direlako ezabatzea proposatzen den artikuluen edukiak, adibidez, artikulua prestatzeko eskakizun tekniko edo antolamenduzkoei dagozkie (9.5. eta 9.6. artikulua edota 10.2. artikulua), borondatezko izaera dute (III. kapitulua) edota alderdi funtzionalei dagozkie (11. artikulua, adibidez; azken horretan, bide batez, ez da zehazten zer organok erabaki behar dituen egin beharreko ebaluazioak).

<sup>2</sup> Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoak egindako Euskal Administrazio Publikoaren Lege Aurreproiektuari buruzko 120/2014 Idazpenaren 249. eta 250. atalek jadanik aipatzen zuten egoera hori, honako adierazpen hauetan: «Lege-mailara igoarazi nahi den gehiegizko arau-dentsitatea, batez ere ebaluazio-prozedurari dagozkion gaitan»; «arau-garapen batean inolako arazorik gabe jaso daitezkeen xehetasun tekniko edo prozedurazkoak jasotzen direnean, orobat, kasu batzuetan, barne-mailako argibideetan».

5. Azkenik, III. kapituluko 14. artikuluan, ebaluazioaren publizitateari buruzkoan, honako bi egoera hauek argitu behar dira:

- 1. zenbakiaren idazketarekin bat, ebaluazioaren publizitate-betebeharrak soilik Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrari eragiten dio, eta ez EAE osoko sektore publiko guztiari; publizitate aktiboaren printzipioak, berriz, erakunde osoari eragiten dio eta ebaluatzeko betebeharra ere, 6.3. artikuluekin bat, Administrazio Orokorra ez den EAEko sektore publikoaren zati horri dagokio.

- 2. zenbakiaren idazketarekin bat, arrazoitu egin behar da ebaluazio-prozesuetan herritarren partaidetzarako izapidea irekitzea ez aipatzea. Ondorioz, *herritarrei entzuteko aldia irekiko da* adierazpenaren ordeaz, *entzunaldia ireki ahalko da* adierazpena jar daiteke.

**C) III. tituluko artikuluei buruzko oharra (15. artikulutik 55.era).**

Titulu horrek euskal sektore publikoaren gardentasuna arautzen du, Estatuko oinarrizko legediaren edukiarri jarraiki, jakina; beraz, honako alderdi hauei buruzko ekarpenak murriztu egiten dira:

1.- Legeko artikuluetan, Internet bidez jardueraren segimendua egiteko gaur egun erabiltzen diren formatu, sare sozial, teknika eta teknologiak aipatzen dira, baita kalitate-estandarrak (16.4. artikulua) eta herritarrekiko harremanetarako egungo plataformak ere. Aipatzekoak dira, esate baterako, honako erreferentzia hauek: Gobernu irekiko plataforma (16. artikulua), geokopak (23. artikulua), datuak berrerabiltzeko printzipioa (22. artikulua) eta software publikoa. Horren harira, kontuan hartu behar da teknologia bizkor aldatzen dela, beraz, ez da komeni kontzeptu horiek Legean jasotzea; horren ordeaz, horiek aipatzeko terminologia neutroagoa erabil daiteke, testuak baino bizkorrago eboluzionatuko baitute eta legea etengabe aldatzera, edota zaharkituta geratzera, behartu baitezakete bestela.

Hartara, Lege aurreproiektua berrikustea proposatzen da, testutik halako terminoak kentzeko. Hala badagokio, horiek, legearen garapenean ezartzen diren tresna juridikoen bidez arautu ahal izango dira.

2.- Zenbaki honen idazketan, ikus daiteke, Lege osoan gertatzen den moduan, arautze-asmo handiegia dagoela, lege-mailako trataera ematen baitzaie antolamenduari loturiko edo bigarren mailako alderdiei, arau gisa erregulatzekoak direnei. Baieztapen horren adibide gisa, aipatzekoa da 20. artikulua 2. zenbakian jasotzen den arautegia, urtero gardentasun-txosten bat egiteko betebeharra aipatzen duena (eduki egokia); atal horretan, jadanik gehiegi azaltzen da zerk izan behar duen eduki minimoa.

Era berean, 4. zenbakian, «euskal sektore publikoko gainerako administrazioei» (argitu behar da autonomia-erkidegoko sektore publikoari edo 1. artikuluan aipatzen den euskal sektore publikoari dagokion) ezartzen zaie funtzio batzuk «herritarrekiko interakzioen eskumenak dituzten sailei» esleitzea; baina hori, ez bada behar bezala definitzen, administrazioaren auto-antolamendu printzipioaren aurka doala uler daiteke.

3. Aurreproiektuaren gaur egungo idazkeran, funtzioak jasotzen dira eta horiek gauzatzea Gobernuko zein organori dagokion zehazten da. Hartara, aipatzekoa da 20. artikuluko 2.

zenbakia. Horretan, ezartzen da herritarrekiko interakzioaren eskumena esleituta duen sailari berariaz esleitzen zaiola gardentasunaren, informazioa eskuratzeko eskubidearen eta Gobernu irekiaren arloko alderdiak sustatzea, diseinatzea, jarratzea, ebaluatzea eta koordinatzea. Hala, Legealdi bakoitzean, Lehendakariaren Arloen Dekretu deritzonaren bitartez, auto-antolamendu ahalmenaren jardun normalean hori egiteko aukera baztertzen da. Ildo berekoa da 20.4. artikuluari buruz jadanik aipatu duguna.

Aurreikuspen horiek, formulatuta dauden moduan, ez da komeni lege-mailan jasotzea, izan ere, administrazioaren maniobratzeko ahalmena mugatzeaz gain, Lehendakariak gaur egun duen antolamendu-ahalmena aurkatzen eta mugatzen dute, Gobernua osatzen duten Sailei dagokienez (ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 8.c) artikuluan onartzen dena), eta egoera horri aipatutako Legea aldatuz bakarrik egin dakioke aurre.

3. Aurreproiektuak sakonki arautzen du publizitate aktiboari loturiko edukia eta, kasu horretan ere, lege-mailara igotzen ditu arau-izaera baino ez duten edukiak, halaber, testuko beste atal batzuetan edo beste lege batzuetan jasotako edukiak errepikatzen ditu. Ildo horretan, 23. artikuluko 2. zenbakiko 1. lerrokadan eta 4. zenbakian, testuko beste atal batzuetan aipatu diren konpromisoak betetze aldera, administrazioak gaitu beharreko zenbait baliabide tekniko eta tresna erabiltzeari buruzko zenbait betebeharrak aipatzen dira. Jadanik testuan jasotako edukiak arintzeko, legeko beste atal batzuetara bideratzea edo testua fusionatzea proposatzen da. Kasu horretan, atal horiek 16.3. artikulura bideratzea edo bietako edukiak fusionatzea baloratu daiteke.

4. Era berean, 32. artikuluko 3. eta 4. zenbakietako edukiak nagusiki arau-izaera du, izan ere, administrazioak eskuragarri dituen datu publikoak herritarrei eraginkortasunez eskaintzeko erabiltzen dituen alderdi teknikoak eta antolamenduzkoak aipatzen dira. Proposatzen den idazketan, informazio zehatz hori eskaintzeko sistema eta kokapena zehazten da, baita herritarrek datu-irekieran parte hartu ahal izateko espazioa ere.

#### **D) IV. tituluko artikuluei buruzko oharra (56. artikulutik 66.era).**

Titulu horretan, partaidetza-demokrazia deritzonaren zenbait alderdi arautzen dira, ordezkapen-demokrazia eta demokrazia zuzenarekin batera doan hirugarren genero gisa ulertuta. Herritarrek gobernuan eta erabaki publikoak hartzeko inplikazio handiagoa izatea bilatzen du.

Zuzenbidearen erregulazioa alde batera utzita, nabarmentzekoak dira, berritasuna dela-eta, orotariko interesak ordezkatzeko dituzten taldeen arautzea (58. artikulua), herritarren partaidetzaren Erregistroaren sorrera (77. artikulua) eta arau-ekimenak sustatzeko eskubidea (65. artikulua).

1. Lege honek eragindako izaera pribatuko erakundeen jardura pribatua eta publikoa bereizteko beharrak gardentasunari loturiko alderdietan bakarrik eragin behar duela oinarritzat hartuta, betiere, ulertuz, legedia sozietarioa nagusitzen dela erakunde pribatuen funtzionamendu-erregimena zehaztean, 56. artikuluko 4. zenbakiko 2. lerrokada ezabatzea iradokitzen da.

2. 59. eta 60. artikuluetan araudi-testu bateko berezko edukia agertzen da, beraz, Txosten honetako beste atal batzuen kasuan bezala, ezabatzea iradokitzen da. 59. artikuluan, jarduera hori sustatzeko neurriak jasotzen dira, hala nola sentsibilizazio- edo prestakuntza-programak edota baliabide elektronikoak eta Administrazio elektronikoa sustatzeko baliabideak ezartzea, orobat, oro har, edozein erakunderen eskura dauden IKTen, baliabideen eta tresnen garapena eta erabilera sustatzea. Bestalde, 60. artikuluan «*askotariko baliabideak erabiltzea*» eta horiek erabiltzeko modua aipatzen dira, halaber, erabilerarako eta prozeduretarako arauak ezartzea; hori guztia, ondoren ere aipatu daiteke, Legearen arau-garapenean.

3. 64.2. artikuluan, gobernu-plana prestatzean eta jarduera esanguratsuak (Gobernu Planean identifikatuta egon ala ez) diseinatzean herritarren partaidetzako prozesuak sustatzen dira, «kontsultarako aldi» bat irekiz. Aldi horretarako muga bakarra, logikoa den moduan, Gobernu Kontseiluari helarazi aurretik egitea da. Idazketan, «hala badagokio» terminoa txertatzea komeni da, izan ere, gobernuaren plangintza guztia edo jarduera esanguratsu guztiak ez dira Gobernu Kontseilura helarazten, hark ezagut edo onar ditzan.

4. 65.1. artikuluari dagokionez, ez da interes anitzak ordezkatzeko dituzten taldeen arteko bereizketa ulertzen (batzuk «herritarren partaidetzarako eta lankidetzarako Erregistroetan inskribatuta» eta, beste batzuk, «Euskal Autonomia Erkidegokoak»), atal honetan onartzen zaien eskubideari dagokionez: alegia, arau-ekimenak sustatzea. Eskubide horretan, lehenak bigarrenen barruan sartuko liriteke. Bestelakoa da, 79. artikuluan ezarritakoarekin bat, eskubidea desberdin erabili ahal izatea egoeraren arabera: komunikazio goiztiarra, interesdun-izaera...

5. 65.5. artikuluan, herritarren arau-ekimena onartzeko, herritarren ekimenen bidez Legebiltzarrean izapidetu beharreko lege-proposamenak aurkeztu ahal izateko bete behar diren baldintzen inguruko irizpideetan oinarritutako analisi bat egin behar dela xedatzen da. Aurreikuspen hori arau-hierarkia, xede eta trazedentzia desberdineko eta, kasu gehienetan, izaera teknikoagoko testu batera egokitzen den edo ez alde batera utzita, badirudi berariaz aipatzen ez den beste analisi bat egin beharko litzatekeela: kasu gehienetan garatzen duen lege-izaerako araudiaren edukiarekiko duen egokitzapen-maila.

### **E) V. tituluko artikuluei buruzko oharrak (67. artikulutik 82.era).**

Gardentasunaren eta gobernu onaren arloan zenbait Organismo eta Instituzio eratu eta arautzen dira titulu honetan: Gardena, Gardentasunerako Euskal Agentzia, herritarren partaidetzarako eta lankidetzarako Erregistroa, orotariko interesak ordezkatzeko dituzten taldeen erregistroa eta Gobernu Irekiaren Plataforma.

1. Legeak *Gardena, Gardentasunerako Euskal Agentzia*, sortzen du organismo autonomo gisa, berezko nortasun juridikoarekin eta autonomia eta independentzia osoa onartzen dion jarduteko ahalmenarekin. Era berean, Gobernu Kontseilua Dekretu bidez bere Estatutua onartzeko gaitzen du, bere antolamendua, egitura eta funtzionamendua zehazteko. Alderdi horiek, zati batean, legeko artikuluetan aipatzen dira (69. artikulua eta hurrengoak). Atal honi dagokionez, ohartarazpen bakarra egin behar da: 70.4. artikulua edukia egokiagoa dela Legearen xedapen iragankorretarako; izan ere, horietan, halako baldintzak aurreikusten



dira eta, gainera, ekintza bakar batean garatzen den betetzearen unean efektua izateari uzten diote.

Horrez gain, gehiegizkoa dirudi testuan 75.2 artikulua txertatzea, Agentziak Legebiltzarrean euskal sektore publikoaren gardentasunari buruz aurkeztu behar duen Memoriaren eduki minimoak zehazteari buruzkoa. Eduki hori erabat araudizkoa da eta, kasu honetan, nahi izanez gero, Legean aipatzen den Agentziaren Estatutuaren edukian txerta daiteke.

2. *Herritarren partaidetzarako eta lankidetzarako Erregistroa eta EAEko orotariko interesak ordezkatzeko dituzten taldeen Erregistroa* sortzea da testuko berritasun nagusietako bat, partaidetzazko demokraziaren mekanismoak ezartzeko saiakeran. Atal horretan, aipatzeko gauza bakarra da 78.2 artikulua idazketa nahasgarria argitu behar dela, izan ere, ez da ageri erreferentzia hau: «*inskripziorako beharrezkoak diren gainerako baldintzekin batera*».

3. Azkenik, III. kapituluaren, *EAEko Gobernu Irekiaren Plataforma* aipatzen da, eta esparru horretan egiten dute bat Lehendakartzaren jarduerak Gobernu Irekiaren arloan eta Herri Administrazio eta Justizia Sailak. Horiei dagokie herritarren eta autonomia-erkidegoko Administrazioaren arteko interakzioa bermatzea.

81. artikuluan, Sail honek garai hartan Euskal Administrazio Publikoaren Lege Aurreproiektuaren 121. artikulua zenarekin lotuta egin zuen proposamena ia osorik jaso da. Plataformaren kontzeptuari eta eginkizunen zehaztapenari buruzko proposamen bat zen eta gai hori jorratzen zuen 2014ko ekainaren 9ko Lehendakartzaren Idazkaritza Nagusiaren Txostenean sartu zuen.

«*Komunikazio informal elektronikoa*» deritzon kontzeptua ere txertatzen du (nahiz eta 2.c) zenbakian *komunikazio elektronikoa informal* deitzen dien). Horiek definitu egiten ditu eta administrazioarako izaera ez-loteslea esleitzen die; alegia, ez dute inolako efektu juridikorik, eta, honela, orain arte zalantzak eragiten zituen alderdi bat arautzen du.

Oro har, txosten honetan egin diren oharrak, iradokizunak eta aipamenak alde batera utzita, Aurreproiektuaren proposamena arintzea proposatzen da, Gobernu Kontseiluak arautu behar dituen eta Lege-mailan arautzea bai eskumen-banaketaren bai arauen eraginkortasun eta operatibitatearen aurkakoa izan daitekeen arlo guztiak kenduz.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko uztailaren 16a

Sin.: Gonzalo López Revuelta  
Plangintza eta Koordinazioko teknikaria

Oniritzia: Mikel Burzako Samper  
Koordinazioko zuzendaria